

BERRIGARA

110. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, ekainak, 4

UDABERRIKO
JAI
KONTZERTUA
IGANDEAN
MUSIKA
ESKOLAK

ARIZNOA:
BERGARAKO
GIMNASIA
ERRITMIKOA

KIROLAK


IPINTZAKO
NAGUSIEN
II FUTBOL
TXAPELKETA
MARTXAN



Agur jaixak,
aguuur...

**BERAIEK NAHIAGO DUTE ZU IXILTZEA.
EZTZAIEZU MESEDE HORI EGIN.**

ZURE BOTOA...



HERRI BATASUNA

TEMPRA STADIO



ERAKUSKETA:

Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:

Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi **FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!**



Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

BERRIGARA astekarria
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97 Errotalde
Jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:
Jardun Elkartea. Masterreka, 13
Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereziar.

Maketazioa:

E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publizitate eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Eburne Arenaza.
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaen.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,
Estepan Plazaola, M. A.
Elkorobereziar, J. M. Elexpuru, J.
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.
Aizelai, A. Lete, J. A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikurña,
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifru.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.


Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurriartzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

HAUTESKUNDEAK

Igandeko Hautes-
kunde Orokorrak ditu-
gu asteko protagonis-
tak. Egia esan, gaur
amaitzen den hautes-
kunde kanpainak ez du
oihartzun haundiegirik
izan gure herrian, baina
hala ere azken egunot-
an komunikabide ez-
berdinen eskutik al-
derdi guztiei buruzko
informazio nahikoa ja-
sotzeko aukera izan
dugu. Igandean 12.863
bergararrek izango du-
te botoa emateko au-
kera.

Bestalde, elbarrituei
eta persona nagusiei
gauzak errezteko, i-
gandean bi aldaketa
izango direla adierzi du



Udalak: lehen San Lo-
rentzoko eskoletan
botatzen zutenak Ibai-
ondoko eskoletan e-
man beharko dute bo-
toa eta Osintxuko es-
koletakoek, berriz,
Osintxuko liburute-
gian.

**12.863 bergararrek izango dute
botoa emateko eskubidea**

ITURRI ONETIK

Antzuolar gezurtiak

Igandean herriko zenbait toki argindar barik geratu
zen. Antzuolarako bidean dagoen Iberdrolako
errepitidore batean 13 kw.tako isolagailuak aberia
bat izan zuen eta Bergarako hainbat etxe, taberna,
eta barrakak argindar barik geratu ziren. Antzuolako
Ekintza Bereziatarako Taldeak eragindako sabotajea
izan dela irakurri dugu. Iberdrolako tekniko batek
hori gezurtatu egin dio BERRIGARari, aberia berez
sortuta izan zela esanez.

ESAN DUTE

"Gaurko gazteak oso
gogorak dira,
mozkortuz gero,
adios"

LUIS LARRAÑAGA
"KIKIO"
Artista
EGUNKARIA

"Cho Oyu teknikoki
mendi erraza da, ez
dauka zailtasun
haundirik"

**JUAN RAMON
GARITANO**
Mendizalea
EGIN

"Euskaraz edota
katalaneraz abestuz
gero, oso mugatuta
zaude.
Nik unibertatsala izan
nahi dut"

MIKEL HERZOG
Kantaria
EL DIARIO VASCO

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA
etxea
Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak
Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza

✓ Motorren bobinak eta
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



JUEGO DE LAGRIMAS
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30. eta
22.30.
Igandea: 17.00, 19.30 eta
22.15.
Astelehena: 19.30



MALCOLM X
Osteguna: 19.30



Simon Arrieta
zeramika taldearen
lanak Kultur Etxean
ikusgai dira.

Zinea

▼▼ Neil
Jordanen (*Mona Lisa*) filme hau aurtengo errebelazioetako bat izan dugu. Oskarretarako 6 nominazio izateaz gain, amodioa, leialtasuna eta heriotza nahasten dituen filme honek publikoaren errekonozimendua ere jaso du.

▼▼ Spike Lee zinegileak (*Haz lo quer debas*) Martin Luther Kingekin batera Estatu Batuetako beltzen liderretako bat izandakoaren bizitza pantailaratu du. Aktore onenaren saria Denzel Washingtonentzat Berlinen.

Erakusketak

▼ Bergara Hiria Argazki Lehiaketaren erakusketa Kultur Etxeko bigarren pisuan egongo da ikusgai datorren igandera arte, ekainak 13.

▼ Simon Arrieta zeramika taldearen lanak Kultur Etxeko erakusgelan ikus daitezke igandera arte, hilak 13. Ohizko ordutegiarekin: astean zehar arratsaldeko 6etatik 8etara eta larunbat, igandea eta jaiegunetan 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

Farmaziak

▼ Larunbata 5:

Mozos.

▼ Igandea 6:

Mozos.

▼ Astelehena 7:

Camacho.

▼ Asteartea 8:

Puy.

▼ Asteazkena 9:

Guallar.

▼ Osteguna 10:

Estella.

▼ Ostirala 11:

Mozos.

Ogia

▼ Igandea 6: Mizpildi.

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

Deiak

▼ **Hitzaldia:** Alkoholiko Anonimoen txarla zabaldua ostiralean, hilak 11, arratsaldeko 7 t'erdietan UNEDen.

▼ **Bizikleta Festa:** Ekainaren 12an, arratsaldeko 4retan, Donostiako Belodromoan Eskola Kirolaren amaiera egingo da eta Gipuzkoako VI. Nazioarteko Pista Saria ere jokatu da. Sarrerak probintzia osoko bizikleta dendatan eskura daitezke dohain, aurretik eskola edota txirrundulari elkarteetan banatuko diren kupoi batzuk bete beharko direla.

Kirolak

▼ Futbola:

Atzo, osteguna, eman zitzaion hasiera Ipintzako Nagusiendako II. Futbol Txapelketari. Hurrengo egunetan jokatu diren partiduak:

• *Amilotx-Amuzkibar. Astelehenean* 19.30etan Ipintzan.

• *A ze flaxa-Os Jardinetros. Astelehenean* 20.30etan.

• *Amilotx-Osintxu. Asteartean* 19.30etan.

• *Mongatxurra-Arloteak. Asteartean* 20.30etan.

• *Pikapiedra-Ezinleike. Asteazkenean* 19.30etan.

• *Bildurbarek LAM-Naikari. Asteazkenean* 20.30etan.

• *Amuskibar- A ze flaxa. Ostegunean* 19.30etan.

• *Paok de San Juan-Ogizun.*

Osteguna 20.30etan.

• *Ogizun-Beti-Ona. Ostiralean* 19.30etan.

• *Osintxu-Mongatxurra. Ostiralean* 20.30etan.

▼ Txirrundularitza:

• Eskola arteko txirrundulari lasterketak larunbatean 16.30etan Matxiategin.

▼ Pelota:

• Beteranoen pelota txapelketa asteartean 19.30etan Osintxun.

▼ Futbitoak:

• **Astebukaeran** Kiroldegian.

Aukeran

▼▼ Udaberriko Kontzertua

eskeiniko dute Musika Eskolako taldeek igandean, eguerdiko 12etan, Mariaren Lagundiko aretoan. Orkestra Sinfonikoa, Tipleen Abesbatza, Akordeoien Orkestra eta Gazteen Bandak, G. Bizet, T. Albinoni, G. Rossini, J. Strauss, J. Busto, G. Mohr, M.M. Aspiazu edota J.A. Aranaren lanak eskeiniko dizkigute.



5

PROFESIONALAK

• Goñi-Alberdi III.a/Lejardi-Andueza.

• Etxaniz-Retegi IV.a/Balardi-Tolosa.

• Gabilondo-Buenetxea/Badiola II.a-Errasti II.a

Larunbatean arratsaldeko 4 t'erdietan Frontoian.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07

Udal gobernuari

Aranzadi Ikastolako gurasoek pribatu jarraitzea erabaki berri dute maiztaren 19an izan zuten bileran. Hau izan da gure herriko ikastolak Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailaren proposamenari eman nahi izan dion erantzuna.

Iazko ekainaren 29an Udal gobernuak ez zuen Aranzadi Ikastolak orduan aurkeztu zuen mozio onartu, ikastolari dagozkion gaiak aztertzeke lekua Eusko Legebiltzarra delakoan eta ez Udala. Hamaika hilabete geroago arazoa berritri ere herri mailara itzuli da gurasoen nahia erabat garbi geratu bait da.

Zentzu honetan Eusko Alkartasunak zera eskatu nahi lioke Udal gobernuari:

1.- Euskararen egoera kontutan izanik eta 1972tik aurrera Bergarako hainbat guraso-belaunaldiak egin izan duen ahalegin berezia ahaztu gabe ikastolaren aldeko apostua bete-betean egin dezala.

2. Eusko Jaurilaritzak eskaini duen aukera bakoitzaren eztabaidan sartu gabe, bidezkotzat jotzen dugu Udalak orain arte Ikastolari urtez-urte luzatu izan dizkion diru-kopuruei eustea.

Proposamen hau begi onez hartu beharko luke Udalak.

Kontxi Irizar
Eako zinegotzia

Herreratik

Herreran, 1993ko apirilaren 26a.
Kaixo abertzale zareten bergarar guztioi.

Gezurra esango nizueke ondo nagoela esango banizue, baina jakinean nengoen hau zela Euskadi askatzeko ordaindu beharreko zerga. Edozein modutan ondoez hau ez da espetxean egoteagatik, egunero PNVkoek trukeko txanpon gisa erabiltzen gaituztelako baizik.

Jeltzaleek erabat ahaztu dute betetzen dituzten jezarleku eroso horiek lehen preso egondakoei zor dizkietela. Beharbada presoekiko hartu duten jarrera aldaketak, beraien helburuak aldatzeari erantzuten dio. Guk, presook, bertan bizi direnak Euskal Herriaren jabe izan behar dutela esaten dugun bitartean, PNVk ahalegin guztiak egiten dihardu euskaldunok Espainian gustora senti gaitezen. Nola bestela espainiar sozialistekin bat egin gu sakabanatzeko. Hori zigorra da. Espainiak inposatzen duen zigorra eta PNV zigorketa horren laguna da eta bere esku dagoen guztia egiten du horrela izan dadin.

Bestalde, EA-EUE koalizioak ibilera motzegia darama, baina orain arte erakutsitako identifikazioarekin nekez lor daiteke abertzaleon aintzindaritza.

Gauzak horrela eta hauteskundeak bueltan daudenez, aukera gutxi gelditzen zaizkigu benetako Euskadi Askatuan sinistu dugunoi. Ondo baino hobeto dakit HBren iharduera guztiak ez direla pozik

egotekoak izan eta hori esaten dutenek arrazoia dutela. Baina hala ere, edozein abertzalaren helburura iristeko eman beharreko ezinbesteko urratsa oraingo honetan Herri Batasunari botoa ematea da.

Jaramonik egiten badiozue esandakoari, baliteke preso gaudenok, errefuxiatu eta deportatuak, laster batean zuon artean egotea herriko plazan edalontziak altxatuta eta independentziagatik topa egiten. Txin-Txin.

Ongi izan pozez eta zorionez eta hauteskundeetan botoa Herri Batasunari.

Herreratik maitasunez.

Jose Luis Loidi

Tiira ba!



Josu Okino

Liburuen aurkezpena

Elkar argitaletxea eta JARDUN Elkartearen eskutik, Juan Martin Elexpuru eta Mikel Hdez. Abaitua idazleek beren azken lanak aurkeztuko dituzte ostegunean, 8etan UNEDen. Mikel Hernandezek "Ispiluak" liburuaren berridazketa egin du eta Juan Martin Elexpuruk, berriz, "Alpeen itzalean" bidai liburua idatzi du.

Bertsotan txapelkunorde

Ainhoa Agirreazaldegibergarar gaztea bigarren sailkatu zen larunbatean Donostian jokaturako Gipuzakoako bertsolari gazteen Txapelketan.

Musika Eskolaren Udaberriko Jai-Kontzertua igandean

Igandean Bergarako Musika Eskolako taldeek Udaberriko Jai-Kontzertua eskeiniko dute. Goizeko 10etan Gazteen Bandarekin kalejira egingo da eta eguerdiko 12etan Orkestra Sinfonikoak, Tipleen Abesbatzak, Akordeoien Orkestak eta Gazteen Bandak kontzertua eskeiniko dute Mariaren Lagundiko aretoan.

Lau talde

Alfredo Gonzalezek zuzentzen duen Orkestra Sinfonikoak Bizeten *Carmina* Operako Suitea eskeiniko du eta Cristina Larrañagaren Tipleen Abesbatzak *Urmaelean* (Busto), *Sua eta tximeleta* (Azpiazu) eta *Iturengo arotza* (Arana Martija) abestuko ditu. Akordeoien Orkestak, berriz, *Adagio en sol menor*



Joan den urteko Udaberriko Kontzertuko irudi bat.

(Albinoni) eta *Manhattan boogie* (Mohr) joko ditu Maria Jesus Ugaldere gidaritzapean eta azkenik, Angel Agirianoren Gazteen Bandak *Semiramis obertura* (Rossini) eta *Voces de primavera* izeneko *valsak* (Strauss).

Kontzertua amaitutakoan berriz ere Gazteen Bandak alaitutako kale-

jira burutuko da herriko kaleetan zehar eta ondoren, ohizko bazkari herrikoia egingo dute Espoiloian. Bazkalosteko berbena Ibaiak taldeak alaituko du. Herri bazkarian 150 lagun biltzea espero da eta goizeko kontzertuan, berriz, Musika Eskolako 200 bat ikaslek hartuko dute parte.

Ingurugiro eguna

Bihar ospatuko den Nazioarteko Ingurugiroaren Egunaren inguruan hainbat ekitaldi iragarri dira; ostiralean 7 t'erdietan *Natura babestu beharra: Pirineotako hartza* hitzaldi-proiektzioa emango da Pol-Polen; larunbatean, 10etan, haurrentzako ibilaldia egingo da Usondo, Unzeta eta Errekalde (argazkian) parkeetatik zehar ea EEEko anagramadun landaretxoak banatuko dira Azoka berriko plazan eta San Martin plazan. Ondoren, 12.30etan, haurrentzat antolatutako marrazki eta erredakzio lehiaketaren sari ematea egingo da Kultur Etxean.

**MAKAILO**

Makailau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

Amets

- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

1933 eta 1952an jaiotakoan anaiarteko egunak

1952an jaiotakoek anaiarteko afaria egingo dute datorren larunbatean, ekainak 12, gaueko 9etan Antxoni Jatetxean. Interesatuak Biltoki, Gracian Agirre edota Estanku Nagusian eman dezakete izena. 1959ko kintoek (1933an jaiotakoak), berriz, beren anaiarteko eguna ekainaren 20an ospatuko dute, Lasa Jatetxean egingo duten bazkariarekin. Izena emateko 762276 edota 761926 telefonoetara jo dezakezue ekainaren 13a baino lehen.

Pobreziaren aurkako laguntzak

1989.ean hasitako Pobreziaren Aurkako Osoko Egitasmoari jarraituz, 1993. urteari dagozkion dirulaguntzen ekitaldia zabalik dagoela adierazi du Elgetako Udalak. Berauen helburua pertsonen oinarrizko premiei eta etxebizitzetako beharrezko zenbait gasturi aurre egiteko dirulaguntzak eskeintzea litzateke. Informazio gehiago Elgetako Udaleko Asistente Sozialaren bulegoan jaso daiteke.



Justo Garate bere familiarekin Arjentinan bizi da gaur egun.

Justo Garate beka kaleratu

Bigarren edizioa Historiari soilik zuzenduko zaio

Bergarako Udalak Justo Garate Arriola bergarar jakintsuaren ome- nez sortutako bekaren 1993ko de- aldia egin du. Oraingo honetan be- ka Historiari soilik zuzendua egongo da eta, iaz bezala, bekaren iraupena 11 hilabetetako izango da (azaroaren 1etik kontatzen ha- sita), diru zenbatekoa 935.000 pta.koa da eta ikerketa lana euska- raz burutuko da. Beka norbanako- ek zein horretarako osatutako lan- taldeek (proiektuaren arduradun- zuzendari batekin) eskuratu ahal izango dute eta, era berean, ezin-

bestekoa izango da 35 urtetik be- herako diplomatua edo maila be- reko tituloduna izatea.


Interesatuak Bergarako Udale- ko Idazkaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak irailaren 1etik 30era bitartean espediente aka- demiko zehaztua eta osatua, *cu- rriculum vitae*a, lanaren memoria (ahalik eta zehatzena) eta eskagi- leen N.A.N.ren fotokopia entrega- tuz. Beka bergarako alkateak adju- dikatu du, aurretik izendatutako Ebaluaketa Batzordearen propo- samena jaso ondoren.



LARRAÑAGA

Autogidarien Eskola

Artetkale 22
Tfnoa: 76 16 63
BERGARA



Epeleko zabortegia orain 8 urte martxan jarritako proiektuaren amaiera da.

Epeleko zabortegia inauguratu

Mankomunitatean sortutako zabor toxikoak jasoko ditu

Ostegunean inauguratu zen Deba Garaiko Mankomunitateko Epeleko zabortegi berria. Bertan izan ziren, besteak beste, Jose Antonio Maturana Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro kontseilaria, Xabier Garmendia Ingurugiro kontseilariordea, Jose Ignacio Escala Ingurugiro Kalitate zuzendaria, Jose Maria Loiti eta German Bere-zibar Mankomunitateko presidente eta gerentea eta Mankomunitatea osatzen duten herrietako alkateak, Victoriano Gallastegi tartean.

36 hektareako azalera, Epele-

ko zabortegiak, lehen fase batean eta 285 milioi pta.ko inbentarioarekin, 737.625 m³ zabor (solido, ez toxiko eta arriskutsuak) jasoko ditu hamabi urtetan. Ondoren, 30 urtetan 2 milioi m³ zaborra hartu ahal izateko, inbentarioa 468 milioi pta.ra helduko da.

Loitik adierazi zuenez, "zabortegia Deba Garaian sortzen diren zaborrei irtenbidea emateko beharrezko da". Mankomunitateak eta Ingurugiro Sailak (zabortegiaren finantzaileak) izandako kolaborazioa ere azpimarratu zuen.

Soldaduskarako prorroga

Ikasten diharduten mutilek eskatu beharreko soldaduskarako prorrogak berrizteko epea zabaldu da.

Horretarako eskariak Bergarako Udaletxean (uztailaren 20a baino lehen)

edo Donostiako Erreklutamendu Zentruan (uztailak 31ra arte) aurkeztu beharko dira hurrengo agiri hauekin batera: ikastetxearen egiaztatzea, N.A.N.ren fotokopia, sobre zuri bat eta 28 pta.ko seilu bat eta Udaletxean dagoen eskabide-orria.

Argazki lehiaketako sari ematea

Bihar larunbata arratsaldeko 8etan Bergara Hiria Argazki lehiaketaren sari banaketa egingo da arratsaldeko 8etan Kultur Etxean. Aukeraturako lanen erakusketa ekainaren 13ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean bertan. Bestalde, Benito Cantero Pol-Pol Argazki taldeko kideak lehen saria lortu du Majadahondako Denali Mendizale taldeak antolatutako diapositiba lehiaketan.

Biltoki

BETI ZURE ZERBITZURA!



xey

SUKALDE ETA BAINURAKO
ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE
HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G
☎ 76 34 00



PHILIPS

TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN
BIDEOAK, HI-FI MATCH-LINE
EKIPOAK, 100 HERTZIOTAKO
DIGITAL SCAM TB-K

BARRENKALE, 6
☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO
ALTZARIAK, ALFOMBRAK,
LARRUZKO SOFAK,
DEKORAZIORAKO
OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2
☎ 76 43 51

GORLA

Mendizaleen elkarte

Felix Altuna eta Andres Osinaldek aipatu digutenez, 1947. urtean zabaldu zen Gorla elkarte. Elkarte hau sortzeko asmoa mendizale talde batek izan zuen. "Grupo alpino Gorla" bezala sortu zen elkarte, eta orain ere horrela jarraitzen du.

1979. urtean elkarte berritu egin zen, pisu bat gchiago erantsiaz lehengoari. Hori egitean nahiko diru ordaindu behar izan zuten bazkideek, eta batzuk elkarte utzi zuten. Momentu honetan sartu ziren bazkide gehiago, 160 bazkide izatera iritsi diren arte.

Gorla elkartearen arautegiek mendizale-tasuna bultzatzen dute. Honela, arauk mendizale karneta ateratzeko gomendioa egiten diete bazkideei, elkartearen izaera mantendu ahal izateko. Gaur egun ere, 57 nagusik eta 17 gaztek dute mendizale karneta Gorlan.

Hontaz gain, Gorla elkarteak Pol-Pol mendizale taldearekin batera, mendi irteerak gertatzen ditu.

160 bazkide hauen batazbesteko adina 55 urte ingurukoa da. 15 jubilatuta daude Gorla elkarte. Jubilatuen kopurua beti da berdina. Zaharretik hasi eta 15 bazkide nagusienak izaten dute elkarte jubilatzeke aukera. Gorla elkartearen emakumeak ere onartzen dira bazkide. Honen testigu dira bazkide diren 8-10 emakumeak.

Diru kontutan sartuaz, joan zen urtean Gorlan 2.500.000 pztako kaja ba-



Gorla elkarte, Gorla eta Elosu aldean diren elkarterik zaharrena.

tu zuten. Batazbeste, %2 ko faltak izaten dituzte elkarte. Hilean 1.000 pztako kuota ordaintzen dute bazkideek, baina ia urtero kuota extra bat ordaindu behar izaten dute. Beti omen dago zerbait egiteko. Aurten ere jangela berria egitekotan dabilta.

Oraingo jangelan 80 lagunentzat tokia dago, baina kanpoan bazkaltzeko girorik ez bada, jangela bete egiten omen da. Hori dela eta, jangela berria egiteko asmatan dabilta. Terraza itxi, eta oraingo komuna eta logela erdiarekin 45 lagunentzat jangela egin nahi dute. Beste logela erdiarekin komun berria egiteko asmoa dute. Berritze honek 4.000.000 tik gorako kostua izango du.

Elkartereko eguna ospatzea galduta dago, baina urtero ospatzen dute hildakoen aldeko meza.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1947.
BAZKIDEAK: 160.
HELBIDEA: Gorla.
PRESIDENTEA: Felix Altuna.
ELKARTEAREN EGUNA: Ez dago.
URTEKO KUOTA: 12.000 pzt.

ESKUALDEKO PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA

(Psikologia gabinetea BERGARA)



KONTSULTA, DIAGNOSTIKOA, TRATAMENDUA (haur, gaztetxo eta helduentzako)

LOGOPEDIA-FONIATRIA

- AHOTS, HIZKETA eta LENGUAIA ZAILTASUNEN BIRGAITZEA.
- DISFONIAK: Birgaitze eta prebentzioa.
 - Noduloak.
 - Polipoak.
 - Edemak.
 - Ahotsa behartzearen ondorioak.
 - Fonazio eta arrasketa kaltetuak.
- DISLALIAK: ahozkatze arazoak.

- DISLEXIAK
- TOTELTASUNAK
- AFASIEN eboluzio eta tratamendua
 - Kalte kraneo-enzefalikoen ondorioak.
 - Berunen zainen istripuak
 - Enzefalitiak.
- DISLALIAK: ahozkatze arazoak.

PSIKOMOTRIZITATEA

ESKOLA ATZERAPENERAKO LAGUNTZAK
 PSIKOLOGIA KLINIKOA

Herri Lagunak (Aranzadi Ikastolako patiotik sarrera). ☎ 76 14 80 telefonora deitu.
 Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal.


Aurrerantzean ere...



ESKERRIKASKO GUZTIOI!!



- Mahaietan
- Txoznetan
- Bideoa grabatzen
- Brusa Lehiaketan
- Eta zuk nahi duzun tokian



JARDUN dezagula!!

Joan zaizkigu Pazkuak. Bost jaiegun izan dira. Bertan geratu direnek, zein kanpora irten direnek (aurten bestetan baino gutxiago izan omen dira) ondo pasatzeko aukera izan dute, gainera, eguraldia lagun izan dugu eta. Jaiak normaltasun osoz igaro direla esan daiteke, ez da aparteko gertaerarik izan. Zerbait aipatzekotan igande arratsaldean herriko zenbait tokitan (barraketan esate baterako) argi indarra ordu pare batean joan egin zela eta astelehenean, barraketako kamioi batek sua hartu zuela. Sua berehala itzali zuten eta ez zen kalte haun dirik izan. Bestalde, eta urtero moduan, aurten ere larunbat gauean eta igande arratsaldean ibili da jende gehien kalean.



GAZTEENTZAKO XIII. MARRAZKI ETA MARGO LEHIAKETA

Larunbat goizean jokaturako 14 urtez azpikoentzako marrazki eta margo lehiaketan haur ugari aritu ziren. Talde ezberdinetako lehen sailkatuak honako hauek dituzue: **Marrazkiei** dagokienez, lehenengo taldean: 1. Amaia Beistegi, 2. Markel Eguren eta 3. Peru Azkarate. Bigarren taldean: 1. Oihane Gurrutxaga, 2. Ione Setien eta 3. Aitor Lagoma. Hirugarren taldean: Ander Elorza, 2. Unai Azkarate eta 3. Aitor Barrutia. **Margoetan** berriz, hauek izan ziren onenak: Lehenengo taldean: 1. Lexeia Larrañaga. Bigarren taldean: Euska Zabaló, 2. Aitziber Muguruza eta 3. Sergio Romero. Hirugarren taldean: 1. Gorka Unzueta, 2. Xabier Ezkibel, 3. Itziar Rodriguez.



ELKARTEEN ARTEKO SUKALDARITZA LEHIAKETA

Gaztetxoak marrazki eta margoak egiten ari ziren bitartean, helduagoak sutondoan, bakailaua pil-pilean gertatzen euren abildadeak erakusten. Zazpi elkartetako ordezkariak aritu ziren eta hiru lehenengoak hauek izan genituen: 1. Danok Bat Elkarte (Blas Aizpurua eta Brigido Naranjo), 47 puntu; 2. San Juan Elkarte (Jose Arrieta eta Iñaki Umerez), 41 puntu eta 3. Elorregiko Alkartasuna Elkarte (Juan Jose Aranburuzabala eta Jesus Osa), 39 puntu. Argazkian, Blas eta Brigido (irabazleak) eta Jose eta Iñaki (bigarrenak).



BITORIANATXO, BEHERA ETA GORA

Ostiralean jeitsi zen Bitorianatxo. Erret mintegiko teilatutik, berrizten dagoen Udaletxeraino. Bost egun alkatearen aulkian eserita egon ondoren, berriz ere joan zitzaigun. Datorren urtean berriz...

EUSKADIKO XAKE TXAPELKETA

1. Peña Rey Ardid (Billabona).
2. Lasalle (Irun).
3. Eibar.

ADISKIDETASUN XAKE TXAPLEKETA

1. San Andres (Arrasate).
2. Agrupacion Ciclista (Castro).
3. Larrasoloeta (Durango).

BERGARAKO HIRI NAGUSIA XAKE TXAPELKETA

Zortzi autonomiatako xake taldeak aritu ziren.

Sailkapena:

1. Oberena (Iruña).
2. La Salle (Irun).
3. Peña Rey Ardid (Billabona).


PLATER TIRAKETA

Asteartean jokaturako Plater Tiraketan lehen hiru postuetan sailkatutakoak:

1. Jesus Ibarguren.
2. Iñaki Garmendia.
3. Mariano Perez.

ETXANIZ ETA TOLOSA TXAPELDUN

Pentekoste saria eskuratu zuen asteartean Etxaniz-Tolosa bikoteak, finalean Koka-Zezeagari 22-17 irabazi ondoren. Etxanizek izugarri jokatu zuen.



UNAI YUS, TXIRRINDULARITZA LASTERKETAN GARAILE

Unai Yus arabarrak (SVC) irabazi zuen igande goizean jokaturako LVIII. Pentekoste Txirrindularitza proba. Unai lasterketan parte hartu zuten 159 txirrindularietatik onena izan zen eta Ibargarai kaleko helmugan Sanestebani (Gurea) esprintean nagusitu zitaion. Tropela hauengandik 21 segundutara iritsi zen.



BRUSA LEHIAKETA

"Jaixetan ez lotsatu eta euskeraz mintzatu" lemadun kuadrilak irabaztu zuten 14 urtez gorakoen taldean JARDUN elkarteak antolatutako Brusar Lehiaketa. 14 urtetik beherakoen taldean, berriz, "Agur amara jeitsi da Bitorianatxo" esaldiaren asmatzaileek (ezkerreko argazkia) jaso zuten lehen saria eta bigarrena, berriz, eskumako argazkia ageri den kuadrilak. Guztira 17 kuadrila aurkeztu ziren.

VIII. LITERATUR LEHIAKETA

Udaieko Euskara Batzordeak antolatutako VIII. Literatur Lehiaketara 303 lan aurkeztu ziren (iaz baino 16 gehiago). Sei taldeetako sarituak:

1. taldea (56 lan):

1. Lore Eguren. "Gaixorik etxean".
2. Andóni Ezenarro. "Elurretako panpina".
3. Ane Iburguren. "Txoritxo maitagarria".

2. taldea (40 lan):

1. Irene Santamaria. "Laika".
2. Jokin Hernandez. "Ambrosio eta bere txakurra".
3. Joseba Orgaz. "Erik elefantea".

3. taldea (84 lan):

1. Aitziber Albistegi. "Mago baten adimena".
2. Maddalen Olabarria. "Zergatik ez gara Plutonera joaten".
3. Oihan Vega. "Eta Gabonak, zertarako".

4. taldea (81 lan):

1. Unai Lopez. "Anbotoko hitzarmena".
2. Iker Elgero. "Beste garai batetara irudimenaren bitartez".
3. Aitzol Mujika. "Armarik ez, mesedez".

5. taldea (38 lan):

1. Larraitx Uribesalgo. "Askatasunaren negarra".
2. Jon Sanchez. "Zoritxarreko erregalia".
3. Julen Larrañaga. "Giokonda". / Maria Gomez. "Barneko amaiera". / Urrats Berriak sari berezia: Iñaki Larrañaga. "Zientzia fikzioa edo etorkizuneko zientzia".

6. taldea (4 lan):

1. Martin Gallastegi. "Bergarako Agirre'tar Martin Deuna".



DANTZA ASKATU TXAPELKETA

Ion Aranburu eta Maite Lazkano bergararrek irabazi zuten igandean Euskadiko Dantza Askatu Txapelketa. Asier Ena eta Laura Carpintero sailkatu ziren bigarren eta Jesus Cuenca eta Aloña Retegi hirugarren.

ESKOLA ARTEKO KIROL TXAPELKETA

Larunbatean jokatu ziren Eskola Kiroleko finalak. Hona hemen txapeldunak:

FUTBOLA: Alebin mutilak: Aranzadi A;

Alebin neskak: Aranzadi B; Benjamin mutilak: Aranzadi H. ESKUBALOIA: Alebin


mutilak: Aranzadi D; Benjamin mutilak: Aranzadi G. SASKIBALOIA: Alebin mutilak:

Alebin neskak: Lorea Garcia; Alebin mutilak: Jon Mendizabal; Infantil mutilak:

Oskar Rueda; Infantil neskak, 60 m: Maite Cot; 600 m: Maite Azpiri; LUZERA JAUZIA:

Lierni Lazkano. ERRELEBOAK: Alebin neskak: Mariaren Lagundia; Infantil

neskak: Aranzadi Ikastola.



ZEZENKETA

Sekulako arrakasta izan zuen igande arratsaldeko txekorketak. Zezen plaza jendez gainezka, eta ikusleak gustora asko. Edu Gracia eta Javier Chacon toreatzaileek belarri bana moztu zuten. Adituen esanetan, berde xamar omen daude oraindik toreatzaile gazteak, Ceşar Morenoren txekorrak, lehenengoa eta azkena batez ere, oso onak irten ziren arren. Debako zezenketen antolatzaileak, "El Satellite" famatuak, eta Eusko Jaurlaritzako Joku eta Ekitaldien inspektoreek Bergarako zezenketaren antolaketa goraipatu zuten. Bestalde, zezenketaren kontrako enkartelada egin zen larunbat arratsaldean eta pintadak ere agertu ziren Zezen Plazan bertan.

BAL TSA LASTERKETA

Aitor Aranzabal eta Esteban Lazkanok gidatutako txalupatxoa gertatu zen garaile asteartean jokatutako Baltsa Lasterketan. Inigo Martinez eta Paulo Elkorok sailkatu ziren bigarren postuan eta Txapa Irratiaren baltsa izan zen hirugarrena.

Jende ugari bildu zen Bideberri eta Santa Marina inguruetan erreka-gizon hauen ahaleginak ikustera.



Ariznoa gimnasia clubean momentu hauetan, 60 neska inguru ari dira eta aurtengo denboraldian urteetako lanaren uzta ari dira batzen. Pentekoste sarian taldeka bigarren postua lortu zuten eta datorren Urrian Espainiako txapelketen antolakuntza

pelketara joateko asmoa dute.

Guzti hori lortzeko beharrezkoa izan da jende askoren lana eta Ariznoan, momentuan itzalpean egiten dutenen lanaz jakiteko aukera izango duzue hurrengo orrietan.

teko orduan oso gutxi hurbiltzen dira gureganana" adierazi digu Agirregabiriak.

Txapelketen antolakuntza

Zuzendaritza berria duenetik Ariznoa Clubean beti saiatu dira, urtean behin gutxienez, gimnasia txapelketa bat antolatzen, bertako gimnastek beraien maila Euskal Herriko beste gimnasta batzuekin neurtu dezaten eta hori antolatzeko Berraondok dioen moduan "lehenengo gauza dirua biltzea da eta horretarako, herriko denda, banketxe etab. etara jotzen dugu, Udalak dirulaguntza ere ematen digu, kontutan izan behar da, horrelako torneo bat antolatzeak ebun mila pzt inguru balio duela, baina gero merezi du, zeren gimnastak oso ondo pasatzen baitute".

Direktibako bi emakumeak gogoz ari dira lan egiten, gimnasiaren alde, baina beraiek diotenez "guri oraindik direktibak lau urte gelditzen zaizkigu eta oraindik gogoz ari gara lanean, baina zuzendaritzan jende gehiago sartu beharko litzateke lana denon artean banatzeko".

Aurtengo urtean Ariznoa taldeko gimnastek portaera txukuna izan dute parte hartu duten txapelketetan eta zuzendaritzakoentzat, hori da beraien lanaren ardatza "aurten Gipuzkoa mailan gure gimnastak ezin hobeto aritu dira eta momentuan 5 gimnasia. Gipuzkoako federazioak bultzatutako programabatean sartuta daude. Horretaz aparte, kontuan



Ariznoa: Bergarako gimnasia erritmikoa

6tik 13 urtera bitarteko 60 bat neska biltzen ditu

Ariznoa gimnasia taldea duela bi urtetik hona, asko aldatu da. Lehenik eta behin direktiba berria sartu zen, eta entrenatzaile berriak ere sartu ziren. Direktiban gimnasta gazte hauen gurasoak daude eta orain, Izaskun Agirregabiria, Lehendakaria, eta Maribi Berraondo, Idazkaria, arduratzen dira, taldeak martxa

ona izateko. Agirregabiriak dioen moduan: "gusartu ginenean Udalak zuen gimnasia eskolarekin batera aritu ginen, baina gero bi sailak batu, Udaleko eskola eta gure saila, eta Ariznoa gimnasia taldea sortu genuen".

Gimnasia talde honetan inork ez du bere lana egiteagatik dirurik ko-bratzen eta gurasoek hi-

lero 3 mila pztatako kuota ordaintzen dute eta halerre, badaude direktiban lana egiteko gogoarekin: "direktibakoak Kultur Ekintzak dituen lokaletan batzen gara, ez daukagu lokal finkorik eta gimnastak entrenatzeko ere lokal falta daukagu, nesken gurasoen aldetik, betikoa, guztiek ordaintzen dute dagokien kuota, baina gero, lana egi-

izan behar da, iaz gure gimnastak ez zirela pasatu berrialde mailako txapelketatik eta aurten lau neska Euskadiko txapelketara pasatu dira eta gure asmoa da Taldekako Estatu mailako txapelketara talde bat eramatea".

Giro ona, derrigorrezkoa

Lehen esan dugun moduan, Ariznoa Cluba sortu baino lehenago, herriko gimnasia ez zegoen bere egoerarik onean, neskek ez zuten gimnasia aritzeko gogo gehiegirik eta pixkanaka taldea uzten ari ziren, baina Direktiba berriaren sarrerarekin batera entrenatzaile talde batekin zion entrenatzeari, talde hori lau neskek osatzen dute, baina horietatik esperientzia gehien dutenak Alicia de Cesar, Iruñarra eta Eva Arevalillo, bergararra, dira. Arevalillok 7 urte inguru daramatza entrenatzen eta ongi ezagutzen ditu herriko gimnasiaren gorabeherak "ni 12 urterekin hasi nintzen gimnasia, jadanik berandu, eta 15 urterekin nire burua entrenatzeari utzi eta neskek entrenatzeari ekin nion".

Ordutik hona, gauza asko aldatu dira, baina Arevalillorentzat, "momentu hauetan neska talde jator batekin ari gara lanean, baina entrenatzeko zailtasunak ditugu, lokal aldetik batez ere, kiroldegian nabiko ordu gutxi ditugu, astean zehar 9, badugu San Miguelen beste lokal bat erabiltzeko aukera, baina nabiko txiki gelditzen da erremintekin (aroa, mazak, zintak) entrenatzeko".

Gimnasia kirol gogorra da, neskek txikitatik hasten dira eta 16 urte di-

tuztenean zaharrak dira, eta adina kontuan izanez gero zaila da entrenatzailearen lana: "gimnasia oso kirol gogorra da, lan asko egin behar da eta gainera kontzentrazio eta dedikazio osoz aritu behar dira. Horrela txikiekin nabiko arazo izaten ditugu eta horrexegatik taldetan banatzen ditugu entrenatzerako orduan" adierazi digu Arevalillok.

Estatuko txapelketa helburu

Gimnastek pasa den urtetik ona sekulako hobekuntza izan dute eta horren ardura, beste batzuren artean, entrenatzailearena da eta Arevalillok dioen moduan "pasa den urtean ez genuen ezer ere lortu, taldean giro nabiko txarra zegoen baina orain clubaren arlo guztietan igartzen da giro ona eta lan egiteko gogo dagoela eta on-

5 gimnasta Gipuzkoako Federazioak bultzatutako programa batean daude.



Berraondo eta Agirregabiria, Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldeko Zuzendaritza Batzordekoak.

dorioz emaitzak ere asko hobetu ditugu".

Emaitzak onak izan

dira, baina etorkizuneko Arevalillok badu bere helburua: "uztailean zehar talde bat gertatuko dugu, Espainiako txapelketan parte har dezan. Hori nabiko zaila izango da, baina neskek gogoz ari dira lanean eta 8 gimnastatako talde osatu bat egitea espero dut".

Estatu mailako txapelketa batean aritzeko maila nabiko ona behar da eta batez ere gimnasia, kirol honetan faktore asko sartzen baitira: "uztailean zehar koreografia landuko dugu, musika, aldaketak ea..., gero abuzturako kirolari bakoitzari bere egoera fisikoa ez galtzeko taula berezi batzuk emango dizkiogu eta gero oportunitate bueltatutakoan aspektu fisikoa landuko dute, Urrian Espainiako txapelketan parte hartu beharrezkoa baita" adierazi digu Arevalillok.

Gurasoek 3.000 pzta.ko kuota ordaintzen dute hilero.



Yolanda Herreros eta Eva Arevalillo, Alicia De Cesar eta Ana Gallastegirekin batera, taldeko entrenatzaileak dira.



APPÉNI^z

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

**Eta zuk botoa erabakita
daukazu?**



Vicente De Dios
35 urte, langilea

Hauteskunde kanpaina aurretik erabakita neukan botoa nori eman. Kanpainan berdina esaten dute beti.



Obdulia Andres
59 urte, etxeakoandra

Erabaki dut, bai, nor botatu. Hauteskunde kanpainak ez du zerikusirik izan nere erabakian.



Ana Colas
29 urte, langabetua


Botatzekotan badakit nori eman botoa. Gehienetan zalantzak izan ditut baina azkenean beti botatu izan dut.



Mikel Ostolaza
21 urte, langabetua

Bai, kanpaina aurretik banekien nor botatu.

MARKIEGI Automobilak



Leizeaga, 1
(San Lorenzo Pol. Ind.)
☎ 76 35 09



- Edozein eratako ibilgailuen karrozeria konponketa
- Mekanika orokorreko zerbitzu berria

ADI ORAIN:

**I. I. T. (I. T. V.)rako errebisioa doan
(Direkzioa, frenoak, amortiguadoreak...)**



Azterketak

Despertadorea sei t'erdietan jartzen dut. Ri-
iin..... zazpirak, riin..... zazpi t'erdia, zortzirik.
Apunteak aurrean eta bost minutuko atsedendia
noiz egin behar dudan besterik ez dut pentsatzen.
Jan, jan beharra daukat, eta konturatu gabe berriro
ere ikasi egin behar. Bapatean zera datorkit burura:
erosketak egin behar ditut, eskerrak!!, beste hamar
minutu etxetik kanpo. Ai ene!!, eta gainera eguraldi
hau.

Joan zen egunean zera zioen psikologo batek
irratitik: "ikasle batek emaitza hobek ateratzen ditu,
ikasten ari dela, tarteka pasada bat ematen badu".
Beraz erosketak egin eta kilometro bat biiltzera noa.
bai, orain prest nago, apunteak hartu... eta zas!!
telefonoa: bai?... ez, ezin naiz joan... beno agian
orduerdia bat bakarrik bada...

Goizez ikastea zaila da benetan, gorputza oraindik
ez da esnatu. Eguerdian siesta ordua. Arratsaldez
merienda... eta gauetz? Ohera joan behar hurrengo
egunean ikasteko.

Jon Ander Bengoa



Kamioilariak

Kamioi gidariek ohizkoa den gidatzeko karneta
lortzeko, azterketatik kanpo beste froga bat gainditu
beharra dute profesionalki, autonomo gisa, lanbide
honetan aritzu nahi badute.

Harrigarria eta nahiko ezaguna bada ere, azken
urte hauetan erabat finkatu den froga dugu lekuko.

Zertan datza alderdi berri hau? Ez dela nahikoa
kamioia gidatzeko gauza izatea. Garraio mundua
dexente aldatu denez, aipaturiko arazo edo alderdi
"tekniko" horren jabe izateaz gain beste zenbait alor
ere menperatu behar duela profesionalki lanbide
honetan murgildurik jarraitzea nahi duenak.

Aipatu bestalde 1986. urtetik aurrera autonomo
gisa aritzeko asmoa dutenei zuzenduriko neurria
dela, hau da, beraien kontura, inork kontratatu gabe,
ari direnei eskatzen zaiena. Menperatu beharreko
gaiak hauexek dituzue: kontabilitatea, Segurtasun
Sozialari dagozkion loturak, lan kontratu moeta des-
berdinak, sektore honetako arau edo baldintza azpi-
marragarrienak, aseguru pribatuak...

Ikusten denez profesional hauek ere gero eta
arazo gehiago dutela nabari da.

Sabin Zabaleta

EXLUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

AKORT

San Lorentzo, 7
behea. Tel. 76 50 39



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

KAILASH

ZENTRO ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomaturako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



TOSHARE

ILEAPAINDEGI MISTOA ESTILISTA.

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA



OILAGORRA Taberna

Barrenkale 21, BERGARA



□ Bola-toki berria, egoitza berritz

Ostiralean inauguratu zen **Jubilatu**en Egoitzako bolatoki berria eta Egoitzan azken hilabetetan egindako berrizte lanak. **Xabier Zubizarreta** Santa Marinako parrokoak bedeinkazioa eman ondoren, **Gema Zabaleta** Gizarte Zerbitzuetako diputatuak bolatokiko zinta moztu



Argozkion, ostiralean inauguratuko bolatokia.

zuen, besteak beste, **Victoriano Gallastegi** Bergarako alkatea, **Koldo Pereira**, **Luis Abajo**, **Jabier Cendoya** eta **Alvaro Esparza** zinegotziak, **Mertxe Anton** Egoitzako administratzaile edota **Anjel Herran** Jubilatuetako presidentea bertan zirela. Jarraian obrak bisitatu zituzten eta Jubilatuen Abesbatzak kantalditxoa eskeini zuten, eta ondoren bildutako elkar-luncha eskeini zitzairen. Arratsaldean, berriz, lehen txapelketa jokatu zen bolatokiko eta, egia esan, politikoak baita punteria hobeagoa erakutsi zuten parte hartu zuten 37 jubilatuek. Irabazlea **Fermin Alberdi** izan zen (saritan trofeoa eta bildotsa eraman zuten), **Felipe Ibabe** (bi oilasko) eta **Julian Aginagaldere**n (oilaskoa) aurretik.

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria


Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

T
B
E
R
N
A



□ **Sendabelarrak aztergai**

EHNE nekazarien elkarteko emakume taldeak antolatuta, **Alberto Altube** angiozartarrak sendabelarrei buruzko hitzaldia eman zuen asteazkenean Kultur Etxean. Hitzaldi hauek Gipuzkoa osoan zehar egiten dira hileko lehen asteazkenean eta oraingoan Bergarari tokatu zitzaion txanda. Jende asko bildu zen asteazkenean eta Altubek hainbat aholku eman zuen belarren erabilerari buruz. Hala ere, oraingoz jaietako biharamona pasatzeko sekreturik ez zuen aurreratu...



□ **Txapeldun**

Ritxar De Goñi Lokatza Sumofic lehen urteko kadeteen taldeko txirrindulariak Urnietako III. Txirrindulari Saria irabazi zuen. Ritxarren lehen denboraldia da honako hau eta orainarte emaitza bikainak lortu ditu, ia parte hartu duen lasterketa guztietan lehen 10en artean sailkatuz. Urnietan irabaztea suertatu zitzaion eta, sari gisa, argazkian ikus dezakezuen kopa dotorea eraman zuen etxera. Zorionak!!


Zertan dibardute ba?

ROMAN GALLASTEGI



Bilboko Sarriko Fakultatean Zientzia Ekonomikotan lizentziatutako 30 urteko bergarar hau Bergarako Banco Central Hispanoko zuzendaria izendatu berri dute.

ARITZ BIKUÑA



20 urteko bergarar honek astebukaeran Donostiako Anoeta Kiroldegian jokaturako Gutxituendako Espainiako Txapelketetan parte hartu du slalom proban.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

CAMACHO

**Drogeria
Usaindegia**

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

Zein da?

Eibartar bat, lagun artian, patxadan, afari ederra egin ondoren, goizeko irurak aldiari, badoia etxera. Atera eltzerakuan, konturatzen da: giltza falta!

- Ene -diño- ointxe naok ondo: nere andria Marina de Guerra dok gero!

An gelditu zan bildurrez, aterik jo nai ezta. Aspertu da, baiña, zaiñ egoten eta alako baten, ausartzen da tinbria jotzera.

Andriak barrutik:

- Zein da?

Eta gizonak:

- Zein dan? Goizeko lauretan gizona falta ta zein dan galdetzen dozu? Oindiok, berak artzekuak...

Estraperlisten txaketa

Plaentxiako "Labegaiñ" soziedarian gertatu zan. An zeguan plaentxiar estrapelista amorratu bat. Onetan, sartu da Eibarko Txomin txaketa panazkuakin. Jantzi arekin ikusitxa, esatetsa plaentxiarrak:

- Dotore ator estraperlista txaketa orrekin.

Eta eibartarrak:

- Estraperlisten jantzixa dok au? A bai! Orduan ik kantzontzilluak be panazkuak eukiko ditxuk!

Pedro Zelaia



Orain dela 20 urte egin zen Bergaran lehen diru eta seilu erakusketa. Ordutik, zaletuak ugaldu egin dira. Argazkian, joan den urteko erakusketa boteko sari-banaketa.

LEHENENGO DIRU ETA SEILU ERAKUSKETA

Joan zen igandean inauguratu zen lehenengo seilu eta diru erakusketa. Hogeita hamairu bildumazale izan dira bergarrarrei beren bilduma bikainak erakutsi dizkietenak. Epaimahaiko Jose Maria Ortuondo, Cesar Giber eta Faustino Barrero jaunak izan dira, guztiak ere Diru eta Seiluen Iparraldeko Federaziokoak. Berek eman duten erabakiaren arabera, honako hau izan da azken sailkapena:

Lehenengo saria, Juanita Lasarentzat, Bergarako Udalak emandako trofeoa.

Euskal gaiko saria, Irigoien Patronatuak emandako plaka, seiluetan, Rosario Zabalari eman zitzaion eta, diruen sailean, Juanita Lasari.

Horretaz gain, euskal gaiko sarietan izan da aipamen berezi bat Jose Maria Ortuondorentzat ere.

La Voz de España. 1973ko ekainaren 5ean. Bikuña.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerrotekatik bildutako notiziak



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:

1993-94 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela.

ESPEZIALITATEAK:

- Haur-Eskola
- Euskal Filologia
- Ingles Filologia

INFORMAZIOA:

Irakasle Eskola
☎ 943 / 71 41 57

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34



Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA

BONOFOTOA



M. A. Elkorobereizbar



ERROMAN URIARTE

ERROMAN URIARTEK irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria.

Aurreko BONOFOTOko argazkian goiko trenbidea agertzen zela gogoratuko duzue. 1971an pasatu zen handik azken aldiz tren. Horixe erantzun zuzena.

ZORIONAK **ERROMAN**i eta besteek segi jokatzen!!

Garai batean Gasteiz-Maltzaga trenbidea zen honako hau orain
kale bihurtu da. **Zein da kale honen izena?**

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria: 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:


BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

ELKAR

Arruriaga 1, behea BERGARA ☎ 76 58 16



- **FOTOKOPIAK KOLORETAN**
- **PLASTIFIKAZIOAK**
- **PLANOEN KOPIAK**
- **JENDEARENTZAKO FAXA**
- **ENKUADERNAZIOAK**
- **Termo-enkolatuak**
- **Burdinazko espiralak**
- **Plastikozko espiralak**
- **Fazikuloak**



ESKAINZA PAREGABEA: DIN A-4 PAPERA (500 orri): 495 pzta.

Pelota finala larunbatean

Oregi II.a eta Oruesagasti senior mailako pelota bikoteak Deba Arroko finala jokatu du Elgetako bikotearen aurka larunbatean Elgoibarren 6ak aldera. Herri arteko txapelketan, berriz, Bergara K.E.ko pelota saila kanpoan geratu da Lasarten 3 eta Oeko emaitzarekin galdu ondoren (1 eta 2 Lasarte-Oriaren alde Bergaran).

Txapeldunak

Bergara K.E.ko 2. errejonaleko futbol taldeak Oriokori txapelketako finala irabazi zion larunbatean Ipuruan, Elorza I.ak lortutako golari esker.

Nagusientzako futbol txapelketa jokatzeko hasi da Ipintzan

Atzo jarri zen martxan Ipintzako futbol zelaian Bergara Kiroi Elkarteak antolatutako nagusientzako futbol txapelketa. Iaz bezala, aurten ere bi kategoria bereiztu dira: A taldea 30 urtetik gorakoentzat (3 taldek eman dute izena: Beti-Ona, Txipiron eta Ogizunek) eta B taldea 18 urtetik gorakoei zuzenduta (15 ekipo). Azken honetan, era berean, 3 talde desberdinu dira eta bakoitzean 5 talde arituko dira.

A taldekoek bi partidu jokatu beharko dituzte talde bakoitzaren kontra eta sailkatzen diren bi lehenak finala jokatu dute uztailaren 9an. B taldean, berriz, buelta bakarrera egingo da eta talde bakoitzetik bi talde sailkatuko dira, hirugarrenen artean final laur-



Beti-Ona taldeak irabazi zuen iaz beteranoen kategorian.

denetarako (uztailak 5, 6, 7 eta 8) beste bi plaza erabakiko direla. Uztailak 12 eta 13an semifinalak izango dira, uztailaren 15ean hirugarren eta laugarren postuetarako partidua eta finala uztailaren 16an jokatu da. Amaitzeko, uztailaren 20an A eta B taldeetako txapel-

dunen arteko partidua jokatu da.

Partidu guztiak asteegunetan jokatu dira 7 t'erdietatik 9 t'erdietara bitartean Ipintzan. Gogoratu, azkenik, Amilotx eta Beti-Ona (beteranoetan) taldeak izan zirela joan den urteko irabazleak.

Arrantza lehiaketa

Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta, arrantza lehiaketa jokatu da igandean San Juan errekan. 50 lagunek eman dute izena bertan parte hartzeko eta bi kategoria izango dira: 16 urtera artekoa lehen eta hortik gorakoentzat bestea. Partaideak goizeko 8etan Tartufoko aparkalekuan bilduko dira eta proba 8 t'erdietatik 12 t'erdiera jokatu da. Irabazleak pieza kopuruz erabakiko dira (pisua, enpate kasuan), kategoria bakoitzeko lehen biek trofeo bana jasoko dute eta horrez gain peskarako materiala ere aukeran egongo da.



ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnos: 76 29 65

BERGARA

HEMEN

edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88



Gorpuzti eguneko prozesioa, 1956.

Jai ofiziala da oraindik ere Korpus-eguna Oñatin eta alde guztietan famatuak dira bertako Korpuseko dantzak. Oñatin ez bezala, beste herrietan gerora galdu egin badira ere, herri gehientsuenetan egiten ziren garai batean Gorpuzti eguneko prozesioak.

Ibilbidean zehar zenbait altare jasotzen ziren eta kanta, musika, dantza, etab. ez osatutako ekitaldiak antolatzen ziren beren inguruan. San Martin Plazan ateratako erretratuan, hor ageri zaigu eskumaldean altarea eta ezker aldean, palio azpian, "Santisimoa" eramaten. Atzean, berriz, "Kruzauak", Eukaristiaren inguruko umeen kofradiako partaideak.

Bertan ezagun asko izango bada ere, «protagonistarik nagusienak» aipatuko ditugu:

Palioari eutsiaz doazenak: ezker aldean, Jose Bergara eta Juanito Irizar; eskumaldean, berriz, Miguel Amutxastegi, Ignazio Madinabeitia eta Leandro Ugarte.

Atzean doazen abadeak, Don Pedro eta Atxotegi; aurrean doazenak, Don Salvador, Don Pepe eta Don Jose Maria Azkarate.

Aurrean doazen mutikoak: Uribesalgo, Satorretxe, Gallastegi Altuna, eta Larrañaga Kortabarria. Aurrekaldean agertzen den monagilloa, berriz, Josu Mujika.

Etepan Plazaola

Argazkia: Mari Tere Bergara

Pub ROSA
Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

MINER
ardak

Biltegi telefonoa: 76 41 41

Ardo
onak,
jakina

ETXEBIZITZA

Jacan udarako apartamentua alokatzen da. ☎ 76 43 98.

3 pertsonarentzako pisua alokairuan hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.

Garaje bikoitza alokairuan Burdñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Artzamendin pisua salgai ☎ 74 40 82.

Garajea salgai Iparragiri kalean. ☎ 76 28 52. Eguerdian edo gauean.

Garajea salgai Ozaetan ☎ 76 56 94.

Pisua alokatzen da Zurradon. ☎ 76 23 27.

Garajea alokatzen da Zurradon ☎ 76 21 39.

Eroski gainean 62 m karratuko pisua salgai. ☎ 72 00 66 / 81 23 17.

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisu haundia salgai Urteagan. Terraza, sukaldea, jangela, 3 logela... Merke. ☎ 76 50 18

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

Garajea salgai Bolun (1.200.000) ☎ 76 25 38

DENETARIK

BMW serie 3 kotxea salgai. Merke. ☎ 76 18 65.

Asteburuetan Madrilera joan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.

Jaietan urrezko pultsera bat galdu nuen. Aurkitu duenari eskertuko nioke nerekin harremanetan jarriko balitz. ☎ 73 05 43.

Kanping denda salgai (haundia). ☎ 76 26 73

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

MOBYLETTE CADY motor bat salgai. ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

Skiak (1.40 zm) eta botak (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

Paseozko bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etxeko gela bikoitz bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Motorrean ibiltzeko kasako integrala erosiko nuke. Merke bada hobea. ☎ 76 10 04.

Errekuperatutako eta berriztutako altzariak salgai. ☎ 76 25 12 / 76 82 17.

Nissan Vanette furgoneta bat (SS-AG) salgai. ☎ 51 51 41.

4 metroko ADRIA karabana salgai. 4-5 pertsonarentzako. Prezio onean. ☎ 76 49 14 (gauetz).

Haurren auker bat (Silver Choss) saltzen dut eta kotxea (Arrue) oparitzen dut. ☎ 76 32 74.

SEGA Megadrivea salgai. (3 jokurekin). 18.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabi).

OPEL CORSA City, BIAK salgai. ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

LANA

Etxeko lanak egin edota umeak zainduko nituzke. ☎ 76 44 67 (Leire).

AutoCAD, FP2 Informatikan praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Esperientziadun neska batek haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 58 10.

Hildakoak

Donata Ruiz de Gauna Moraza
maiatzak 28, 85 urte
Valentin Egaña Aurrekoetxea
maiatzak 31, 91 urte

Jaiotakoak

Mikel Aristi Gardoki
maiatzak 28

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

URRATS
Kafetegia

ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

Zure Esku



EUSKADI



EAJ
PNV

HOBETZEKO

11
O
A
A
C
O
DE
TX
A
I